

GREGORIO ELIAS OLAZAR MURUAGA pasiotarra

Zenon Uriguen
pasiotarra



ARRIETA-ko GOTZAINA

Bizkaiko erri bat da Sollube mendiaren oñetan kotatua Erri eder onetan ikusten dogu eliza eder bat XIIgarren gizadian egiña, eta Jainko Eliza oso beneragarria. Baña erri baten edertaunak ez dira etxe, mendi ta zelaiak. Arrietaren gauza goragarrienak bere pertsona jatorrak izan dira beti. Ara emen Elias Olazar, Pasiotarra izanik gotzain ospetsua izan dana, mixiolari moduan Peruko erri eta basoetan. Eta beragaz batera beste ainbeste mixiolari Arrietarrak, gaur egunetan Kristoren mixiolari diranak eta baita be beste ainbat erritarrak. Onak eta ongilleak. ELIAS OLAZAR gotzaina Arrietan jaioa dogu 1912 urtean. Gurasoak Victor ta Maria Cruz. Gregorio mutikoak, gaztetatik bere barne-muiñetan Pasiotarra izateko gogo bizia sentitzen dau. Eta emen bere buru argiaz eliz ikasteak egiñik 1935 urtean abadegintza artzen dau. Emen

bai agertuko dituala bere gaitasunak, buruaren argitasuna, eta bere onberatasuna. Abadegintza ostean gure Pasiotarrak ez gara komentu barruan sartuta bizi, erririk erri ibilliko gara Kristoren mezua zabaltzen, autortzak egiten. Beste batzuk gure ikastetxetara doaz umien irakasle izateko. Aita Eliasen ekintza izango da irakasle izatea.

Berebiziko gaitasuna erakutsirik, zer? Erromara doa Teologia ikaskuntza bereziak egitera. Eta jardunaldi ori amaiturik Deustura dator emen Teologia gaietan maixu ta irakasle izatera. Ni eta nire kursokoak, amabi, adurra dariola entzun ta ikasi genduzan bere jakituri sakon ta aberatsaren ikasgaiak. 1951 urtean gure Probintzial nagusiaren asesor izango da.

1952 urtean, Atanasio Jauregi Peruko Gotzainaren ordezeko izateko autatua da. 1953 urtean Begoñako santutegian, Gotzain ordena artuko dau. Albiste onek artzen dau muga bako aizearen indarra inguruetan gure Eliasen entzute onagaitik. Ospakizun ori ondo ospatzeko, zer? Gasteiztik ekarri dabe Mendibil jauna, maestro de ceremonias, eta beragaz 18 ikasle. Bilboko agintari guztiak konbidatuak izanik. Ospakizun eder ori Bilboko Gotzainaren jauregian asiko da. Eun Pasiotar inguru, Bilboko parrokiako eliztarrak, eta Mons. Casimiro Morcillo, Jaime Font Andreu, Donostiako gotzaña, Mons. Saturnino Burgo de Osmako gotzaina. Ospakizun onen buru izan zan kardenal de Santiago de Compostela Fernando Quiroga.

Goragarri orren ondoren Hotel Torrontegin batu ziran Gotzain eta agintari guztiak gure Gotzain barriari gorengo omenaldia egiteko. Mons. Olazar-ek emon eutson amaiera jaialdi ederrari San Felizisimo Elizan Pasiotar eta Arrietako erritarren aurrean. Eta azaroaren 10 egunean Elias Gotzañak artzen dau biotz taupada aundiekaz Marques de Comillas itxasontzia Peruko gure mixioetara. Atanasio Jauregi gotzaña il ostean bera iza zan ango Gotzaiña. Peru-n Presidente de la Comisión episcopal de la fe en la **conferencia episcopal izanik. Bere eriotza izan zan 1976 urtean.**

Elias gotzaiñaren omenez:

Urte barruan zelan
dan udabarria
alan gure bizitzan
da irribarria
Jaunaren irudia
gugan ezarria
Jainko seme garala
da ezaugarria.

"Amar urte ez dira bear amar gauza ikasteko".